

Nafarroako Gobernuaren Ekonomiaren Garapen eta Negozioen Saileko, Energia, Industria eta S3 Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiari

Adin nagusikoa naizen..... N.A.N. zenbakia eta ondorioetarako jakinarazpenak egoitzaherrian.....posta kodearekinkalean daukadana, entitate honen aurrean agertzen naiz eta eskubidez ahalik eta hobekien jarraituz, **DIOT**:

2021eko urriaren 18an, erakustaldi publikora ipinitako NBOaren 241 zenbakian argitaratuak izan ziren *Solaria Promoción y Desarrollo Fotovoltaico S.L.U* enpresak sustaturik jendaurrean erakusteko iragarritako "Serena Solar 1" Eguzki Planta Fotovoltaikoa (5087-CE), "Serena Solar 3" Eguzki Planta Fotovoltaikoa (5089-CE) eta "Amaya Solar 4" Eguzki Planta Fotovoltaikoa (5110-CE), eta bere ebakuazio azpiegiturak, *Adiós, Enériz, Úcar, Biurrun-Olcoz eta Tiebas-Muruarte de Retako* proiektuei alegazioak burutzeko, idazki honen bidez, behar den garaian eta moduan, honako **ALEGAZIO** hauek egiten ditut:

- 379.344 modulu fotovoltaikoz osatuta dauden, potentzia handiko lineak eta Eguzki Zentral Fotovoltaiko hauek (aurreantzean EZF) tentsioa, azpiestazioak, etab., berez eragin negatibo handia dakartzate nekazaritzako ingurumenean, gizartean, inguruko kulturean, ekonomian eta baita paisaian ere.
- Santiago edo Donejakue bidea, ondare kultural eta historikoa denari eragiten dio, errepidearen bidegurutzera baino lehen, zehazki Frantzia, Aragoi eta Europaren iparraldeko bide guztiekin bat egiten duen puntuak kokatuta baitago. Bidea hau Interes Kulturalako Ondasun izanda ere, Gizarteriaren Ondare izendatua izan da. Gainera foru-erkidegoarentzat diru-sarrera ekonomikoak sortzen ditu.
- EZF honek Santa Maria de Eunate ermitaren paisaiari eragiten dio, Nafarroako turismo-ikur bat, arauz babesturikoa eta paisaia berezi gisa sailkatuta bait da.
- EZF hartzen duten herrialdeko nekazari gazteen eta lehen sektorean eragina dakar, hauen etorkizuna arriskuan jarritz. Landutako lur-lehorren eremu zabal bati kalte handia dakartza, nekazaritza tradizionala izugarri jaitsiko litzateke.
- Estatuaren produktibitate-tarte handienetakoen artean sartzen diren zerealeko lur-lehorren eraldaketa atzerazina suposatzen du. Instalazioalaborantzarako balio natural handiko lurzoruetan dago, non eguraldi eta jardura onak lurzoruen kudeaketan, laborantzarekin batera, iberiar penintsulako ekoizpen altuenetarikoak lortzen dira.
- Balio historiko kultural handiko erabilera tradizionalak desagertzea suposatzen du, nekazaritzari eta lur komunalen kudeaketari lotutakoak, hauen zati handi bat beren usufektuaren pribatizazioaren mehatxupean baitago enpresa kanpotar batengatik, herriaren ondareak diren eta herritarren oberako diren komunak xedearen aurka joanda.
- Bai herrietako bizilagunei, bai gainerako erabiltzaileei, baita Erreniegako behatokiaz bisitatza datozenei ere ikusmen eta paisaia-inpaktu handia eragiten die, inguruaz gozatzea eragotziz. Ondorioz, inguruko kultura, gastronomia eta landa turismoaren garapen aukerak murriztuz.
- Honelako proiektuek ez dute biztanleria finkatzen, inguru natural eta landa eremuetan despopulatzeko arriskua areagotzen du ordea, turismoarako eta bisitokirako erakargarri nagusia ingurua dela eta.
- Eragin negatiboa enpleguan: lehen eta hirugarren sektoretan (ostalaritzan, landa turismoan) kalteak eraginez. Maitasuna Ondare kulturalak eta naturalak, ingurumenaren erakargarritasun turistikoak gutxiesteak, enplegua suntsitzea edo kaltetzea dakartza.
- Gaur egun orekan dauden lurralde natural, agroambientalen bilakaera egokia ahultzen du eta baldintza natural eta nekazaritza-ingurumenetan oso era larrian eragiten du, lurraldearen zatiketa ekologikoagatik, habitaten, intereseko flora eta faunaren populazioen galera bait dakar eremuan.
- Pertsonen osasunean eragiten du: EZFa inguruko biztanleek (ume txikietatik adinekoetara) gehien erabiltzen duten aisialdi eremuan proiektatzen da, sarbide eroso eta zentzuetarako atsegina izateagatik, eta hau da naturarekin berriro konektatu eta osasun fisikoa eta mentala hobetzera laguntzen duena.
- Nafarroako Gobernuak eta Europak sustatutako Azpiegitura Berdeen Estrategia balioesten du, naturak eskaintzen dituen onurak edo ekosistemen zerbitzuaren aurka eginez.
- Proiektua biztanleriaren zati handi baten borondatearen aurka doa eta herrietako osasun sozialean eragiten du, edukiz Dagoeneko haustura soziala eta zailtasunak eragin ditu auzokideen arteko harremanetan eta baita familietan ere.
- Nekazaritza-espazio hauek industria-poligono bihurtzeak tradizioei lotutako identitatearen galera eragiten du nekazaritza eta paisaia, balio kulturalen eta herrien duintasunaren errespetuaren aurka joatea.
- Proiektuaren neurrigabeko zatiketa: EZFak, Serena Solar 1 (49.969 MWp), Serena Solar 3 (49.991 MWp) eta Amaya Solar 4 (47.982 MWp), ondoan edo elkarturik daude, jabetza partaidatuarekin, ebakuazio-linea eta azpiestazio elektrikoak elkarturik daude bakar bat osatuz. Instalazioa, 50 MW (147,9 MWp) baino potentzia elektriko handiagoa izanda, Estatu Administrazioarekin izapidetu beharrez.
- Badago beste modu bat. Eskala handiko proiektuen eta nekazaritza-ingurumen eta soziokulturalaren eraginaren aurrean, Gobernuari eskatzen diogu proiektu txiki eta deszentralizatuak (teilatuetan, espazio humanizatuetan, poligonoetan, industrialdeak, etab.) gogor sustatzea, Nafarroa komunitate jasangarri, aitzindari baten eredu bilakatuz. Nafarroa Horizonte 2030 Energia Planaren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoarekin bidezkoa eta koherentea izanda.

*Guzti horregatik, **ESKATZEN DUT** agiri hau aurkeztuta, onar dezala, eta, horregatik, aintzat har dezala. aurreko alegazioak, dagozkion izapideak egin ondoren erreferentziazko proiektua balioz gabetzea adostu dezan. Eta luzapen gisa, abian dauden mota honetako proiektu guztiak gelditu daitezela eskatzen dut, baita Nafarroan behar dugun energia eredurako plangintza egoki eta hausnarketa prozesu bat sortzea.*